

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza

info

Asteazkena, 2013ko ekainaren 19a. IX. urtea. 2.613. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



Erik Jaka, Lizartzako frontoian. I. TERRADILLOS

Erik Jaka Pilotaria

«Asko arriskatzen dut eta tantoak bukatzea gustatzen zait»

Erik Jaka pilotari lizartzarrak profesionaletan debuta egingo du Aspe enpresarekin; San Joan egunean izango da, Astelena pilotalekuan 05

Katiuska talde tolosarrak bere lehen lana taularatuko du

Bonberenean egingo dute antzezlan, bihar 06



Katiuska antzerki taldeko kideak. M. IRAOLA

Emakumezkoen txirrindulari proba, San Joan bezperan

Gipuzkoako Txapelketako azken jardunaldia hartuko du estreinakoz, Tolosak 02

Metalgintzako grebaren harira LABek ELAren jarrera salatu du

LABek gaur deitu du mobilizazioa Tolosan, ELAk ostiralean 03

Beste «eraso» bat salatu du Maxurrenea Herrintzat-ek

Maxurrenea etxea itzultzea eskatzen duten sinadurak lapurtu dituztela dio 07



www.basoedariak.com
BASOA
Ostalaritzako produktuen banaketa

Antzizar 1. atzealdea • BEASAIN (Gipuzkoa) • T/F 943-88 12 21



Eskuadeko txirrindulari batzuk aurkezpenen izan ziren Abraham Olano eta Ibai Iriartekin. I. URKIZU

Tolosako I. Sari Nagusia txirrindulari proban ehun emakume lehiatuko dira

San Joan bezperan izango da lasterketa, eta eskualdeko 15 txirrindulari inguruk parte hartuko dute

Itzea Urkizu

Gipuzkoako Txapelketako azken jardunaldia izango da, igandearen 09:00etatik aurrera, Tolosan, 100 emakumek jokatuiko dutena. Tolosako Emakumeen I. Sari Nagusia antolatuta du lehenengoz, Tolosa CFk, Oriako txirrindulari eskolaren eta Tolosako Udalaren laguntzarekin, eta San Joan jaien egitarau barruan txertatu dute.

Ibai Iriarte alkateak emakumezkoen kirola sustatzeak duen garrantzia nabarmendu du aurkezpenen: «Hasiera-hasieratik genero politikei garrantzia eman diegu, eta kirola eta emakumeak uztartzen saiatu gara. Tolosaldean asko dira txirrindularitzan ari diren neskek, baina nahiko ezkutu izan den jardura da. Beraz,

lasterketa honek balio dezala emakumeek egiten duten lana erakusteko, eta herriko eta eskualdeko neska gehiago txirrindularitzara hurbiltzeko».

Tolosako alkatearekin batera, ibilbidea diseinatu duen Abraham Olano eta Irene San Sebastian, Maddi Amondarain eta Nahia Dominguez txirrindulariak izan dira. Dominguezek, igandeko lasterketa aukera «polita» dela azpimarratu du: «Etxetik gertu lasterketa batean aritzea motibazio bat gehiago da guretzat, eta inguruko neskek txirrindularitza ezagutzeko aukera ere ematen du».

Horrela, beraz, Osintxu eta Bergara artean jokatu zen lasterketarekin, eta Zizurkil eta Villabona artekoarekin batera, Gipuzkoako txapelketa borobilduko duen proba izango da Tolosako. 15 urtetik gorako 100 txirrindulari inguruk parte hartuko dute, eta ibilbideak Tolosako herriaz gain, Irura, Anoeta, Lizartza nahiz Ibarra errepideak ere zeharkatuko ditu.

Abraham Olanok prestatu du ibilbidea, eta antolatzaileek azaldu dutenez, «zorrotza eta gogorra» izango da; azken zirkuituan, esaterako, %12ko pendiza duen aldapa igo beharko dute neskek. Irteera nahiz helmuga puntuak Tolosan izango ditu lasterketak, «baina aurrera begira, eskualde osoko lasterketa bilakatzea da helburua», azaldu du Olanok.

Eskualdeko harrobia lehiatzen

Parte hartuko duten 100 txirrindularien artean, eskualdeko 15 inguru izango dira; horiez gain, asturiarrak, Herrialde Katalanekoak, madrildarrak nahiz Gaztelakoak izango dira, kadete, gazte eta elite mailan lehiatzen.

Kadeteak irtenango dira 09:00etan, eta itzuli bana emango diete, A eta B zirkuituari; 35 kilometro izango dira, gutxi-gorabehera. Jarraian elite mailakoak izango dira irteera puntuan, eta A zirkuituari ere itzuli bat emango diote; helmugatik igarotzera doazenean, ordea, junior mailakoak batuko zaizkie, eta guztiek bina itzuli emango dizkiete A nahiz B zirkuituari. Horrela, beraz, gazteek 70 kilometro inguru egin beharko dituzte, eta elite mailakoek 90 inguru.

↓ Iragarki laburrak

LAN BILA

Etxeko lanetarako. Goizetan, etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko, emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Autoa badauka. 943 69 68 82 / 606 52 19 92..

→ Laburrak

Txosnagunean solstizio jaia izango da etzi

GIZARTEA » Plaza Berriko txosnagunean solstizio jaia antolatuta dituzte ostiralerako. 18:00etan eskolen arteko olinpiadak izango dira, eta 19:30ean bertso poteoa. Ondoren herri afaria izango dute, eta txartelak Rakun eta Denaken daude eskuragarri.

'Apaizac obeto', gaur, Bidaiaien Txokoan

GIZARTEA » Antxon Bandres Bidaiaien Txokoan *Apaizac obeto* dokumentala eskainiko dute, gaur, 20:00etan. Aurkezpenean Albaola Elkarteak Mar-kox Sistiaga eta Ane Miralles izango dira.

Uda Gazteko izen ematea etzi amaituko da

GIZARTEA » Topaguneak antolatuta, Uda Gazte ikastaroetan bi saio antolatuta dituzte, uztaierako. Surf ikastaroa izango da bat, eta rock lantegia bestea. Izena emateko azken eguna ostirala izango da, eta kultur etxean egin daiteke.

Oargiren irteeran izena emateko azken eguna

MENDIA » Oargik irteera antolatuta ostrialek astelenehera bitarte. Gavarnie-ra joango dira, eta izena emateko azken eguna gaur da. 688698642 zenbakian edo info@oargi.org-en egin daiteke, eta 20 euro aurreratu beharko dira ondorengo kontuan: 3035 0028 1102 8114 1038 (Euskadiko Kutxa).

Et Incarnatusen solstizio kontzertua larunbatean

KULTURA » Urteroko moduan, Et Incarnatus orkestrak solstizio kontzertua eskainiko du, sanjoan inguruan. Larunbatean izango da, 12:30ean, eta eguraldiak lagunduz gero, betiko lekuan izango da emanaldia: Urkizu gainean, Iraolako zuloan, antenaren azpian. Eguraldi txarra egiten badu, berriaz, Urkizuko Alurtxiki auzo elkartearen izango da emanaldia. Amaieran mokadutxo egingo dute.

Errezeta elektronikoak erabilgarri daude jada, Tolosan

Aurrerantzean osasun txartela erakutsi beharko da botikan; «seguruagoa eta eraginkorragoa» da

I. Urkizu

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak jakinarazi duenez, Tolosako herritarrek erabil dezakete dagoeneko errezeta elektronikoen sistema beren botikak erosteko orduan. Errezeta elektronikoen sistema norbere botikak eskuratzeko modu berria da, eta arduradunek diotenez, «seguruagoa eta eraginkorragoa da». Aipatzekoa da, gainera, laster desagertu egingo direla orain arte erabili izan diren paperezko errezetak; botikara joatean, beraz, osasun txartela erakutsi beharko da beti, behar diren medikamentuak jaso ahal izateko.

Osasun sailak, besteak beste, errezeta elektronikari esker mediku eta farmazialariak errazago koordinatuko direla azpimarratu du, eta honez gain, gaixo kroniko eta akutuen, asistentzia maila guztietan, medikamentuak agintzeko prozesuan integratu ahal izango dira. Arriskuak gutxitzeko eta terapia beteko dutela bermatzeko balioko du honek.

Txakurren jabeei hiria garbi mantentzeko eskatu die Tolosako Udalak

Azkenaldian hainbat herritarren kexak jaso ditu udalak, eta araua betetzen ez dutenei isuna jarriko diete

I. Urkizu

Tolosako Udalak animaliak dituzten jabeei oharra helarazi nahi izan die, honen inguruko udal arautegia betetzen ez dutenek isuna jasoko dutela azalduz.

Azkenaldian herritarren aldeetik hainbat kexa jaso ditu udalak, eta kezkatuta daude, herriko berdegune, kale, nahiz parke asko txakurren kaka eta pixez zikinduta agertzen direlako. Horrela, beraz, jabeei hiria garbi mantentzea eskatu die udalak.



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

LAB sindikatuak gogor kritikatu du ELAren jarrera metalgintzan

Gipuzkoako zahar egoitzetan erabili duten borroka molde berdina aplikatu dutela esan dute ELAtik

Asier Imaz

Bigarren sektorean lanpostu gehien sortzen dituen alorra metalgintza da, Gipuzkoan 50.000 inguru. Tolosaldean enpresa gehienek dute metalgintza sektorearekin lotura, eta une honetan, Hego Euskal Herri osoan bezala, langileak borrokara deitu dituzte sindikatuak. Alde batetik, LAB, CCOO eta UGTren deialdia dago. Bestetik, ELA sindikatuarena. Tartean, kritika oso zorrotzak.

LAB, CCOO eta UGT, aste honetan, sektore osoko langileengana zuzendu dira, lurraldeko hitzarmenaren alde hiru eguneko greba deituz. Lehen, astelehenean egin zuten. Tolosa, kotxe karabana egin ostean, 200 lagun inguru elkartu ziren elkarretaratzean Trianguloan. Gaur, asteazkena, bigarren greba eguna izango da. Astelehenean egin bezala, 08:00etan Usabal kiroldegian inguruan elkartuko dira euren aldarrikapenak zabalatzeko asmoz. 11:00etan, Tolosako Trianguloan elkarretaratzea egingo dute. Aste honetako azken borroka eguna, ostiralean egingo dute. Kasu honetan, Donostian. 12:00etatik aurrera.

↓ Greban

LAB, CCOO ETA UGT-REN DEIALDIAREKIN BAT EGIN DUTEN ENPRESAK

- Ados Montaiak (Asteasu)
- Bostek (Asteasu)
- Endaki (Aduna)
- Caldereria Delta (Ibarra)
- Const. Met. Ula (Zizurkil)
- Ebaki Lan (Ibarra)
- Etexa (Asteasu)
- Fudike (Ibarra)
- Ind. Olano (Tolosa)
- Inoximek (Belauntza)
- Ind. Jaguar (Villabona)
- Lantier (Ikaztegieta)
- Man (Ikaztegieta)
- Garmendiola (Tolosa)
- Ind. Stern (Zizurkil)
- Tauni (Villabona)
- T. Arrastoa (Zizurkil)
- T. Bost (Asteasu)
- T. Guibe (Irura)

rrera, manifestazioan irtengo dira Boulevarretik.

ELA sindikatuak bere deialdia lan hitzarmenik ez duten enpresetara zabaldu du. Astelehenean Bergaran egin zuten manifestazioa, eta ostiralean, Tolosan elkartuko dira. Gipuzkoa mailako mobilizazioa izango da, eta hitzordua 11:00etan jarri dute Trianguloan.

Lehen egunetako balantzea egiterako unean, ELA eta LAB sindikatuak gustura agertu dira langileen erantzunarekin. Biek ala biek, euren deialdien balantze positiboa egiten dute, beraz. LAB sindikatuak eskualdeko 20 enpresen izenak jarri ditu mahai gainean, hiru eguneko greba deialdia ren sostengua azaltzeko. ELA sindikatutik, eskualdean bost eguneko grebarekin bat egin duten enpresen zerrendarik ez, baina bai oro har hainbat enpresa txiki eta ertainek deialdiarekin bat egin dutenaren ziurtapena. Bost eguneko greba egiteaz gain, greba mugagabe ere atera direla nabarmendu dute gainera. Anoetako Maquinados y Montajes aipatuz. Horrez gain, LAB eta CCOO gehiengoak diren lantegietan hiru eguneko ataradela onartzen dute.

«Adegiren laguntzaile»

Tolosaldeko LABen ordezkaria metalgintzan Mari Mujika da, eta oso kritika gogorak egin dizkio ELA sindikatuari, metalgintzako borroka deialdien inguruan: «Maiatzaren 24an sindikatu guztiok greba eguna deitu genuten, lurraldeko hitzarmenaren defentsan. Hor hasi zen metalgintzako borroka, ez aste honetan. Ondoren, ELAren aldaketa nabarmena etorri da, eta guretzat, ezustekoa».

ELA eta LABen greba deialdien desberdintasuna ez da greba egunetara mugatzen, Mujikaren arabera: «LABek herrialdeko hitzarmenaren defentsan enpresa guzti-guztietan deitu du greba, bertan barne ituna izan edo ez. ELAk, ordea, erreformari aurre egin dioten enpresak greba deialditik at utzi ditu ofizialki, blindajea lortuta duten enpresak». Mujikak dienez, «formula hori ez da hitzarmena bultzatzeko egokia, enpresa garrantzitsuek herrialdeko hitzarmenaren borrokatik kanpo utzi ditzakegulako, LABek horregatik bultzatzen du greba enpresa guztietan».

Horrez gain, ELAk esandakoa ere ez duela bete esan du Mujikak:



LAB eta ELAren ordezkariak elkarrekin, greba orokorraren harira. A. IMAZ

«Madrildik datorren erreforma berriaren aurrean blindaturik dauden enpresak sartzen genituen salbuespen horretan, eta guk, Indar bakarrik ezagutzen dugun baldintza horietan, ELAk 60-70 lantegi aipatzen ditu. Ados. Blindaje horrekin goazen 80 lantegi daudela esatera. Autonomia erkidegoan 3.200 lantegi daude sektorean, %97a blindajerik gabe. ELAk bere formularekin ere sektorearen gehiengoan bultzatu be-

haia ere ez dute deitzen negoziaketekin hasteko. Euren enpresaz enpresa hitzarmenak lotzen joatea komeni zaie; afiliazioak igotzea beste helbururik ez dute, eta kaxa egitea. Herrialdeko lan hitzarmena? Pikutara. Hori da atzean dagoen estrategia. Langileek enpresako hitzarmena aplikatzea nahi baldin badute, afiliatu egin beharko dute, eta hori ere bota dute». Mari Mujikaren ustez, LABek sindikatu bezala, «hainbat eta hainbat gauza birplanteatu» beharko litzuke.



«Eskualdeko eta herrialdeko ia enpresa guztietan ELAk grebari ezezkoa esan dio»

MARI MUJIKA
LABen ordezkaria

harko luke bost eguneko greba, baina hori ez da horrela izan».

Tolosaldeko LABen ordezkariak «greba mediatikoa» deitza leporatu dio ELAri, komunikabideetan bost eguneko greba egin behar dutela zabaldu eta gero, ez dutelako horrela egin: «Eskualdeko LABek grebak deitu dituen enpresa askotan ELAko ordezkariak ezezkoa jaso dugu. Non daude grebak? Orbinok, Arretxe, Voith, Pasaban... ELAk ordezkarietza zabaldu du enpresa hauetan, baina ez du grebara deitu. Hori da ez duguna ulertzen, eta gainera, blindatu gabeko hainbat eta hainbat itun blindaturik dituztela esaten dute. Zein enpresetan lortu dute blindajea, greba ez deitze? Ez dakigu. Baina dakiguna da eskualde eta herrialdeko ia enpresa guztietan grebari ezezkoa esan diotela».

Mari Mujika haratago joan da, eta ELAk «bere joko arauekin», Adegiri «bere estrategia» aurrera ateratzen laguntzen diola salatu du: «Ez da metalgintzan bakarrik gertatzen hau. ELAk gehiengo zabaldua duen beste hainbat sektorean ere gauza bera gertatu da, eta ez da oraingo kontua, urteetakoak baizik. Egurgintzan, beiragintzan, klinika pribatuetan... urteak daramatzate lurraldeko hitzarmenik gabe, esan bezala, eurak gehiengo absolutua izanda. Ma-

«Egokitu egin behar da»

Mikel Zabaleta ELAren ordezkariak «hika-mikan» ez duela sartu nahi azaldu du, eta garrantzitsuen jendeari zer gertatzen ari den azaltzea dela esan du, «azken finean, etorkizunari begira, hori baita garrantzitsua». Zer gertatzen den azaltzerakoan, ELAren ordezkariak, egoera «komplexua» eta «iluna» dela aitortzen du. Horren aurrean, Gipuzkoako zahar egoitzetan burutzen ari diren borroka molde berdina aplikatzen ari direla metalgintzan azaldu du ELAren ordezkariak: «Lurraldeko hitzarmenak bai, baina baita enpresakoak ere. Gatazka horretan borroka behetik gora abiatu da, hau da, enpresa guztietan antolatuta da borroka, modu honetan sektore guztia hankaz gora jarri arte. Horixe da Adegiri presioa egiteko modurik eraginkorrena».

Zabaletaren ustez, patronala ziur dago sindikatuak egoera berrira moldatzeko gai ez direla izango, eta ondorioz, «enpresetan nahi dutena egiteko parada izango dutela». Planteamendu hori irauli beharra dagoela uste du: «Enpresatik abiatzen den borroka lantegi guztietan eta era berean sektore mailan lan baldintzak ahalik eta hobekien babesteko balio behar du».

Mikel Zabaletak aipatzen duen «egoera berria», Espainiako agintarien erabakietan kokatzen du: «2012ko otsailean Espainiako Gobernuak inposatutako erreforma laboralak orain arte indarrean zeuden lan baldintzak eta negoziazio kolektiboko arauak hankaz gora jarri zituen». Horren aurrean, geldirik ez direla egon esan du ELAren ordezkariak: «Greba orokorrak, mobilizazioak eta hainbat ekintza egin ditugu, baina zorritzarrez, gaurkoz, hori da inposatu diguten errealitatea. Jubilazioekin gertatzen ari den moduan, edo hainbat eta hainbat laguntza publikoekin, orain jendeak baldintza okerragoak dauka duela urte gutxi batzuk baino».

Aipatu aldaketa hauek sindikatuen borroka moldeetan aldaketak ekarri behar dituela uste du Zabaletak: «Egoera latz hau eta legedi injustu hau aldatzen ez den bitartean, langilegoa eta gizartea oro ar ahaz dugun modu egokien defendaetzea egokitzen zai-gu. Hau da, informatu, antolatu eta modurik eraginkorrenean borrokatu behar dugu. Arauak aldatu egin dizkigutenez, aurreko moldeekin borrokatzen badugu ez gara eraginkorrak izango, eta



«Borroka behetik gora abiatu da, hau da, enpresa guztietan antolatuta da borroka»

MIKEL ZABALETA
ELAren ordezkaria

etorkizunean ondorio eta emaitza txarrak ekarriko dizkigu».

Egun, lurraldeko hitzarmenak ez aplikatzea errazagoa dela dio Zabaletak, erreforma berriak aukera hori eskaintzen baitu, adibidez, «enpresarien aurreikuspenak nahikoa dira hitzarmenetik at gelditzeko; ez dituzte galerak izan beharrik». Alde bakarrekotasuna bultzatzen duten hainbat artikulua aipatu ditu Zabaletak, lan erreforma berrian agertzen direnak, eta horrez gain, «orain, enpresetako hitzarmenak probintzia mailan dauden hitzarmenen baldintzak baino kaxkarragoak izan ditzakete. Lehen modu ilegalean askotan eragiten zutena, orain legala izatea lortu dute enpresariak». Guzti horri aurre egiteko, beste behin ere, borrokamoldeak «egoera berrira egokitu» behar direla dio Mikel Zabaletak, «goizago edo berandago, erasoak etorri egingo dira, erreformak ez baitu enpresa txiki eta handien artean bereizketarik egiten».

Beti alai jateke

Garaian garaiko janariak Arraikiatan bereziki

943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Errementeri kalea, 16 • 20400 TOLOSA



Ezkerrean, herriko plaza jendez lepo festetako egun batean; eskuinean, berriz, txistulari taldea 1967. urtean. HITZA



Amasa-Villabonako Udaleko Kultura sailak, herritarren laguntzaz herriko festen historia errepasatzen duen erakusketa antolatu du, eta bertan ikusgai dira, besteak beste, antzinako jaietako programa eta kartelak.

Santio jaiei atzera begiratua

Mikel Iraola Amasa-Villabona

Ia duela 400 urtekoa da Villabonako Santio jaiei buruz aurkitu den lehen aztarna. 1622koa hain zuzen, Amasarekin elkartu eta berehalakoa. Musikariei eta zezenak ordaintzeko ordainketa-agindu bat da topatutako dokumentu hori.

Harrezkero artxibategian topatu diren eta herritarrek eman dituzten argazki, programa, kartel eta bestelako elementuekin era-

kusketa bat antolatu du Villabonako Udalak.

XVII. mende hartako informazio askorik ez dute topatu udal artxibategian, izan ere, 1812. urtean, Independentzia gerran udaletxea erre zuten Frantziako kuartela zenean, eta milaka dokumentu desagertu ziren. Hala ere, jakin izan da 1681. urtean, besteak beste, ez zirela jaiak ospatu udalak zituen zorrerengatik eta urte hartako uzta txarraren ondorioz.

Gaur egungo jaiekin alderatuz

desberdintasun handiegirik ez dagoela nabari da. Festetan, musika, dantza eta zezenak izan ohi ziren ardatz nagusi. Baina baziren beste bi ekintza herrian oso harrera ona izaten zutenak. Alde batetik, XIX. mendean ohikoak izaten ziren tokian tokiko santuaren aldeko hitzaldiak. Bestalde, errebote partidak ere oso estimatuak izaten ziren herrian.

Euskal kulturaren pizkundearekin batera iritsi ziren bertsolaritza, euskal dantza eta euskal an-

tzerkia Villabonako jaietara. Ordu arte egutegian tokirik gabe geratu ohi ziren ekintza hauek. Txistulariek eta herriko bandarekin batera egiten zuten alardeak ere ikusmin handia pizten zuten.

Programak ikusgai

Erakusketa horren helburu nagusia garaiko programak jendearen eskura jartzea da.

Horregatik, bildu diren programa guztiak digitalizatu eta bertako ordenagailu batean ikusteko

aukera izango da. 1980ra bitartekoak bitrinetan ere jarri dituzte gertutik ikusi ahal izateko. 1981. urtetik aurrera kartel lehiaketa antolatu zen herrian, eta gaur arte irabazle izan diren guztiak daude ikusgai.

Hurrengo larunbatera arte

Erakusketa, ekainaren 29ra bitarte izango da zabalik, Gurea antzokiko erakusketa gelan, astean zehar, 18:00etatik 20:30era, eta larunbateran 10:30etik 13:00etara.

Euskal Herrian ba omen dira txolarre eta zozoez gain beste ehunka txori espezie; horiek bildu ditu argazkitan Juan Mari Ibarzabalek Zizurkilgo kultur etxean.

Txoriak 'ehizatuz'

M. Iraola Zizurkil

Zizurkilan ere bada zer ikusi. Juan Mari Ibarzabal argazkilariak Euskal Herriko basoetan aurkitzen diren hainbat txori espeziaren 32 argazkirekin osatutako *Txoriak* izeneko erakusketa, hain zuzen ere.

Txolarre eta zozoez gain, Euskal Herriko ibai eta basoetan «kolorre eta txorrotxiok betetako mundu» bat dagoela dio Ibarzabalek. Horietako espezie asko migrazio mugimenduetan etortzen dira, atsedena hartu edo umealdia lasai izateko asmoz.

Argazki hauek atera ahal izateko, «arreta eta pazientzia» ugari behar izan du argazkilariak. «Hezagtiei argazkiak ateratzeko, kontuz ibili behar da gure tresnak



Hainbat txori espeziaren 32 argazki osatutako erakusketa ikusgai izango da ostiralera bitarte. JUAN MARI IBARZABAL



ezartzeko garaian, beren habitatean sartzen ari garenez, euren ohi-turak aldatu ditzakegun arrotz batzuk baikara. Horregatik, gure presentzia gogaikarria izan ez da-

din, ahalik eta oharkabekoen izateko tresnak erabili behar dira».

Erakusketan, erabilitako teknika horien berri jakin ahal izango da: sarearen atzean jartzearena

edota etxolarena. «Orduak eta orduak» igaro behar izan ditu argazki horiek ateratzeko. Txori hauen bizimodua zein den helaraztea da bere helburua.

Datorren ostirala, hilaren 21a izango da erakusketako azken eguna. 11:00etatik 13:00etara, eta arratsalde, 16:00etatik 20:00etara egongo da zabalik Atxulondon.

Erik Jaka ● Pilotaria

Astelehenean egingo du profesionaletan debuta pilotari lizartzarrak; Zazpi Iturri «ia dena» izan dela pilotan beretzat esan du.

«Partida onak egin eta maila berrira egokitzea da orain garrantzitsuen»

Iñigo Terradillos Lizartza

Ia bi urtez Asperekin entrenatzen aritu eta gero, jauzia emateko unea ailegatuzaio Erik Jakari (Lizartza, 1994). San Joan egunez, hilaren 24an, egingo du profesionaletarako debuta, Eibarko Astelena pilotalekuan. «Oso pozik» dago, eta orain pixkana maila berrira egokitu nahi duela azaldu du.

Nola ikusten duzu zure burua asteleneko hitzorduaren aurrean?

Momentuz, lasai nago. Pasa den ostiralean jokatu nuen azken partida, eta oraindik hura dut buruan, ez genuen partida ona egin, eta galdu egin genuen. Baina, uste dut asteak aurrera egin ahal urduritasunak ere agertuz joango direla.

Espero al zenuen Asperen deia, edo ezustean hartu duzu?

Ez nuen espero, beste gauza batzuk gehiago entzuten baitziren nire debutarena baino. Aspeko Jokin Etxanizekin urte eta erdi neraman entrenatzen, eta nire burua nahiko txukun ikusten nuen. Partidetan eta txapelketetan ere maila polita ari nintzen erakusten, beraz, nire ustez, azkenean, lanaren saria izan da.

Asko itxarondako saria.

Bai. Pilotan gabiltzan guztion ametsa da profesionaletarako jauzia ematea. Aukera hori eman didate, eta oso pozik nago.

Debuteko partida nolako espero duzu?

Partida gogorra izango da. Beñat Rezusta oso forma onean dago, pilotari asko ematen dio, eta aurkariarentzat oso pilotari deserosoa da, ez baitio uzten aurrelariari bere jokoa egiten. Ni, berriz, Kepa Peñagarikano nire bikotearekin oso gustura ari naiz jokatzeko. Aurrean, badakit Aritz Lasarekin lan zaila izango dudala, pilotari handia delako, baina saiatuko gara gure lana egiten eta itxura ona ematen.

Mikel Olaetxearekin batera, bi lizartzar ariko zarete orain profesionaletan.

Poztekoa da. Mikel beste maila

batean dago, eta ez dago nirekin alderatzerik. Bera dagoeneko lehen mailako pilotaria da, eta ni, berriz, oraintxe igo berria. Bestalde, Mikel Asegarcen dago, eta ni, berriz, Aspen. Nik uste dut herrikideak izanik jarriko dutela bion arteko partidaren bat, polita baitzateke.

Ze helburu jarri diozu zure buruari?

Orain partidak jokatu, ikasten jarraitu eta maila berrira egokitu behar dut pixkana. Seinale ona litzateke onera nabarmentzea. Baina, dena den, garrantzitsuen partida onak egitea eta irudi ona ematea da, eta erakustea maila horretan jokatzeko moduan zarela.

Gaur egun ez da batere erraza profesionaletarako pausoa ematea.

Ez. Gaur egun guztia dago lehen baino zailago. Diruaren kontuarengatik, krisiak ere eragin zuzena izan du pilotan, eta ondorioz, enpresek plantilak murriztu dituzte. Garai batean, esaterako, 30 pertsonarentzat lekua baldin bazegoen, ba, gaur egun, 20rentzat baino ez dago. Beraz, hor sartzea lortzeko poz handia ematen du, eta aldi berean, eskertzekoa da zurekin kontaktatzen dutela ikus-tea.

Zure ibilbidean zer izan da Zazpi Iturri zuretzat?

Pilotan ia dena izan da niretzat. Amezketako pilota elkarteak. Lizartzan hasi nintzen pilotan, bai-

«Zazpi Iturri pilotan ia dena izan da niretzat, eta Xalton, berriz, pilotan nire aita»

«Ikasketak eta pilota oso ondo uztartu ditut beti, eta biekin jarraitzeko asmoa dut»

na, 11-12 urterekin Zazpi Iturrira pasa nintzen, Xaltonen aginduetara. Giro oso polita izan dugu beti, elkarren artean oso ondo moldatu gara, beti elkarri lagunduz, eta entrenamenduetan ez

bada ere, giro horretan jarraitzea gustatuko litzaidake.

Xalton Zabalez, berriz, zer esango zenuke?

Pilotaren munduan nire aita da. Berak irakatsi dit dakidan guztia, eta gaur egun ere irakasten jarraitzen du. Espero dut aurrerantzean ere horrela izatea.

Atzelari moduan aritzen zinen lehen, baina azken urteetan aurreko koadroetan arizara.

Aldaketa handia izan zen. Xaltonek eta Aspe enpresako Jokin Etxanizek eta Inaxio Errandoneak hala gomendatuta egin nuen aldaketa. Egia esan, gustura hartu nuen, betidanik gehiago gustatu izan baitzait aurrean jokatzeko. Txikia nintzela, gorputzez handia nintzelako-edo atzean jartzen ninduten eta ondo moldatzen nintzelako atzean jarraitu nuen, baina aurrera pasatzeko berria oso gustura hartu nuen.

Pilotari moduan zeintzu dira zure ezaugarriak?

Aurrera egitea asko gustatzen zait, eta askotan nire buruari kalte ere egiten diot ezaugarri horrekin. Asko arriskatzen dut, eta tantoak bukatzea gustatzen zait, airez-eta.

Txapelketetan non ikusten duzu zure burua erosoan, buruz-burukoan, binakakoan ala lau t'erdikoan?

Atzean aritzen nintzenean gehiago gustatzen zitzaidan banakakoa, binakakoa bukatzeko aukera handiagoa izaten nuelako. Orain, berriz, aurrean aritzen naizelarik, binakakoa gehiago gustatzen zait.

Bereziki atsegin edo jarraitzen duzun pilotaririk?

Ez dut bereziki pilotari bat, baizik eta pilotari bakoitzaren ezaugarri onei begiratzen diet. Aiharren pi-

lotari izate hori miresten dut, Irujoren indarra, eta Xalaren estilo elegantea, esaterako.

Unibertsitate ikasketak ere egiten ari zara. Pilotarekin eta unibertsitatearekin jarraitzeko asmoa al duzu?

Donostian ari naiz psikologia ikasten, eta lehendabiziko urtea bukatu berri dut. Ikasketak nahiz pilotaren mundua oso ondo uztartu izan ditut beti, eta ondo ari naiz bietan, gainera. Beraz, profesionaletarako pausoa emango dudan arren, ez dut ikasketak uzteko asmorik.

↓ Datuak

- **Pilotaria.** Erik Jaka Soroa.
- **Jaiotze data.** 1994-03-13.
- **Jaioterria.** Lizartza.
- **Pisua.** 77 kg.
- **Altuera.** 1,80 m.
- **Jokalari mota.** Aurrelaria.
- **Palmaresa.** Bergara Hiria (2012-2013); Berria Txapelketa (2011-2013); Elgetako Lau t'erdikoa (2009).
- **Debuta.** 2013-06-24: Eibarko Astelena pilotalekuan.





Katiuska antzerki taldeko kideak Bonbereneako oholztan entsaio egun batean. M. IRAOLA

Katiuska antzerki taldeak bihar (20:30ean, Bonberenean) eskainiko du bere lehen antzezlan. Duela urte t'erdia sortu zen taldea egitearen ideia, eta «primeran» pasatzen dutela azaldu dute partaideek.

Katiuskako errege-erreginak

Mikel Iraola Tolosa

Duela urte t'erdiko Ostegun Gizen batean hasi zen guztia. Iluntzean. Bonberenea Txaranga Euskal Herri plazako arkupeetan aritzen jotzen. Dantzan zebilen jendea, eta bat batean, elkar ezagutzen zuten bi lagunek topo egin eta aspaldian buruan bueltaka zuten ideari forma ematen hasi ziren.

Maitasun istorio baten hasiera badirudi ere, umorez eta algaraz betetako laguntasun baten hasieraz —edo jarraipenaz— ari gara.

«Euskarazko antzerki talde bat egin behar dugu» esan zion bata besteari. Taldea osatzean deitzeko erantzun zion hark. Ibarra festetan berriz ere elkartu ziren. Eta horrela, iraila hasieran, telefono dei bat jaso zuen Idoia Gereñu,

Euskal Herriko Antzerkizale Elkarteko kideak. «Lau lagun bildu gara, Idoia». «Ea besteren bat animatzen den». Esan eta egin. Lautik seira, eta ondoren hamarrera. Eta konturatzerako, antzerki taldea martxan hasi zen.

Astelehen arratsaldetan hasi ziren biltzen. Urritik abendura bitarte antzerki tailerra izan zuten, ondo antzeztan ikasteko. Gereñu izan zen arduradun.

Baina taldeak bazuen zerbaiten falta: izenarena. «Etxekolan modura hurrengo saioko proposamenez betetako lista ekartzea erabaki genuen. Batek bakarrik egin zituen lanak», dio Gereñuk.

Lista horren egilea Ander Malbadi albizturtarra izan zen. Hark eramandako zerrendatik bat bera ere ez zuten aukeratu, eta horregatik dio, umoretsu, «bigarren izen

hoberena» aukeratu zutela taldearentzat.

Edurene Izagirre tolosarra izan zen izena jartzen asmatu zuena. Halako batean, inprobisatuz, «katiuska» hitza bota zuen, eta bozketan garaile izan zen. Katiuska antzerki taldea ofizialki sortu zen.

Ostegunean, estreinua

Ostegun Gizen egun hartan sortu, San Bartolome jaietan berretsi, irailean indartu, eta Katiuska hitzaren asmakuntzarekin hasi zen taldeak, bihar emango du argitara bere lehen lana. Tolosako Bonberenean *Katiusken erreinua* izeneko antzezlan eskainiko dute 20:30etatik aurrera.

Sormen propioko obra da *Katiusken Erreinua*. Abenduan, inuzente egunaren bezperan bildu ziren *brainstorming* bat egiteko De-

ban. Inuzente egunera arte luzatu omen zen. «Bezpera zaleak» direla aitortzeko ez dute arazorik.

Taldearen izenari erreparatu zioten antzezlan sortzeko. Katiuskek elementu gisa dituzten balio ezberdinak gogora ekarriko dituzten hamar *sketch* sortu dituzte, bata bestearengandik independenteak, baina era berean, lotura bat badutenak.

«Gauza irrealak da, magikoa, eta zati bakoitzak pentsatzera behartuko du ikuslea» dio Txoan Ormazabal partaideak. Xabi Gomezek antzezlan astez aste aldatu egin dela dio. «Abenduan erabakitakoak eta egingo dugunak aldeketa asko izan ditu. Azken batean, ikasi ahala, garatu egin da».

Testuak bakarrik ez, musika ere propioa izango dute. David Azurzak espreski konposatutako doinuak joko dituzte, Azurza bera, Ion Arruebarrena, Antton Telleria eta Unai Artolaren laguntzaz. «Sekulako lana egin dute denek» dio taldearen zuzendariak. «Jendeak gozatuko duelakoan nago. Talde amateurra dela kontuan izan behar da, baina hori ez da txarra denaren esanahia. Badu bere xarma».

Talde giro ezinhobea

Oholtza gainean ondo moldatzen dira. Baina hortik kanpo, are hobeto. «Sekulako talde giroa sortu da, eta hori garrantzitsua da. Antzerkia talde lana da, eta erlazio per-

↓ Datuak

KATIUSKA TALDEA

- **Obra.** *Katiusken erreinua*.
- **Formatua.** 10 sketch labor.
- **Zuzendaria.** Idoia Gereñu.
- **Partaideak.** Izaskun Artola, Idoia Bengoetxea, Miren Gari-kano, Olatz Godoy, Xabi Gomez, Edurene Izagirre, Miguel Legarra, Ander Malbadi, Txoan Ormazabal eta Anne Urretabizkaia.
- **Musikariak.** David Azurza (konposatzailea eta teklatua), Ion Arruebarrena (saxofoia), Antton Telleria (perkusioa) eta Unai Artola (bibolina).
- **Eguna.** Osteguna, hilak 20.
- **Ordua.** 20:30.
- **Lekua.** Bonberenea (Tolosa).

tsionalak batzean nabaritu egiten da» azaldu du Gereñuk. «Oso ondo pasatzen dugu, eta deskonexio bat da guretzat», diote partaideek.

Euskal Herriko txoko asko bisitatu dituzte antzezlanak ikusiz, ikasteko. Parrandaren bat edo beste ere egin izan dute. «Parrandan sortu zen Katiuska, eta horrela jarraituko du». Beraz, gurasoak lasai egon daitezela, «euskal kultur-gintza biziberritzeko, euskaraz antzezteko eta denon gozamenarako lanean» aritzen baitira ordu txiki horietan. Lan horretan jarraitzeko asmoa eta gooa dute eta horretara animatzen dituzte besteak.



HITZAK harpidedunentzat
2 sarrera pare ditu

SORTUKO DIRA BESTEAK KONTZERTUA

Ekainak 21 • Ostirala • 20:30ean Tolosako Leidorren

hitza®

Zozketan parte hartzeko deitu 943 65 56 95 telefono zenbakira



sarrerak



Maxurrenea herriari itzultzeko sinadurak lapurtu dituzte

Astebete herrian gertatu den bigarren «erasoa» salatu dute, hainbat pankarta txikituta agertu ostean

I. Terradillos Leitza

Maxurrenea Herrintzat plataformak salatu duenez, Leitzako tabernetan eta dendetan Maxurrenea herriari itzultzea eskatzeko sinadura bilketa orriak lapurtu egin dituzte. Adierazi dutenez, iragan astean izan zutena kontuan hartuta, astebete jasan duten bigarren «erasoa» litzateke.

Plataformak aste honetan bertan eman behar zion amaiera sinadura bilketa kanpainari, eta horregatik tabernetan eta dendetan utzitako orriak biltzeari ekin diotenean konturatu dira hainbatetan orriak falta direla. Adierazi dutenez, ezin izan dute jakin sinadura kopuru zehatza, baina gutxienez 80-100 artean izan dai-

tezkeela uste dute. Horregatik, leitzarrei eskaera sinatu zuten dendan edo tabernan galdetu eta beharrezkoa balitz berriz sinatzea eskatzen diete.

Beste hainbat eragileek bezala, Maxurrenea Herrintzat plataformak etxea herriari itzul diezaioten eskatuz eskegi ziren pankartak txikituta azaldu ziren aurreko astean. Ondorioz, plataformari denbora gutxian egin dioten bigarren «erasoa» dela salatu dute. Herri plataformaren aurka «boikot eta sabotajea» direla azaldu dute, eta herri borondatea errespeta dezaten eskatu dute plataformako kideek. «Leitzarren borondatearen aurkako erasoak direla uste dugu, bai pankartak apurtu izan zein sinadurak lapurtzea. Aski da! Eta horrelako ekintzak burutzen dituztenei gonbidapena egiten diegu beraien aldarrikapenak aurpegia emanez egin ditzaten, gainontzetan koena zapaldu gabe, eta eskatzen diegu besteok leitzarren nahiei bide ematen egiten dugun lana oztopa ez dezaten», esan dute.

Argazkilaritza ikastaroa martxan irailetik aurrera

Tolosaldeko argazkilarien elkarteak antolatuta, 21 orduko ikastaroa emango dute, Tolosako kultur etxean

I. Terradillos Tolosa

Argazkilaritza dokumentala ikastaroa antolatu du Targazki Tolosaldeko argazkilarien elkarteak. 21 orduko iraupena izango

du, eta larunbatetan, 16:30etik 19:30era emango du, Jesus Mari Arruabarrena UEUko irakaslea. Irailaren 7an hasiko da, hama-bostean behin izango da, eta abenduaren 14ra arte iraungo du.

Tolosako kultur etxean emango dute, eta 12 ikaslelik 15era bitarteko lekua izango da. targazki@gmail.com helbidean eman behar da izena hilaren 28a baino lehen. Matrikula 150 euro ordaindu behar da.

→ Laburrak

Ikasturte amaierako jaialdia, ostiral goizean

BERASTEGI Ostiralean, hilaren 21ean Berastegiko eskolako jaialdia izango da. 10:00etan gaztetxoek euren emanaldiak eskainiko dituzte, eta ondoren, txorizo egosia eta edaria banatuko dute guraso elkarteek.

Kuadrillen eguna prestatzeko bilera, etzi

IBARRA Kuadrillen eguna antolatze bilerara deitu du Zuzenik ez kuadrillak. Etzi izango da, 20:00etan, Ibai-Gaíneko dantza lokalean. Udalaren proposamena, menuak, egunaren antolaketa eta bazkarirako txartelez hitz egingo dute.

Urdaibai inguruan irteera, Mendibil taldearekin

LEITZA Mendibil mendi taldeak irteera antolatu du larunbatetik, hilaren 22rako. Elantxobetik Laidako hondartzara joango dira. Egun osoko irteera izango da, eta animatzen denak bihar izango du izena emateko azken eguna, ohiko lekuetan.

Webgunea berri du Elduaingo Udalak

ELDUAIN Elduaingo Udalak webgune berria du (www.elduain.com). Herriari buruzko albisteak eta datuak biltzeaz gain, aurrerantzean herritarrek hainbat tramite bertatik egiteko aukera izango dute udaletxera joan beharrik gabe.

Motofesta Alegian izango da, uztailaren 6an eta 7an

ALEGIA Langostino Moto kultur elkarteak antolatuta, uztailaren 6an eta 7an ospatuko dute XI. Motofesta. Aurtengoa Ibarri izan ordez, Alegian egingo dute, udalaren eta Route 33-ren laguntzarekin. Gainerakoan, beste urteetako ohiko ekitaldiak izango dira.

Irudia Tolosa



BIZKAIAN ZEHAR IBILALDIA

Alpino Uzturre mendi elkarteak Bizkaian, Urdaibai inguruan, egin zuten ibilbidea iragan igandean. Gernikatik abiatu eta San Esteban ermita, Arteaga gaztelua, Ozollo errota eta San Lorentzo ermita ikusi ahal izan zituzten, eta ondoren Atxarre mendia igo zuten (argazkian). Bertatik, Laga hondartzaren gainean dagoen Ogoño mendira joan ziren, eta azkenik Elantxobera jaitsi ziren. Eguraldi ederra lagun, ederki pasatu zutela azaldu dute. Hurrengo irteera Pirinioetara egingo dute, uztailean. HITZA

Aresoko guraso elkartearekin, Txindokiko Itzalara edota igerilekuetara

I. Terradillos Areso

Aresoko guraso elkarteak irteera antolatu du uztailaren 6rako. Bi aukera jarri dituzte. Bata, Txindokiko Itzalara joatea litzateke. Abaltzisketara autoz joango liriteke, bertatik Larraitxera oinez, eta han abentura parkean ibiliko liriteke, kontuan hartuta, lau urtetik gorakoentzat dela. Gainerako haurrentzat haur parkea ere badago. Beste aukera Iruñeko Arantzadi igerilekuetara joatea litzateke.

Interesa duten aresoarrek eskolako taulan jarritako zerrendan izena eman beharko dute, eta gaur izango da azken eguna.

Gazteluko Pirritx, Porrotx eta Marimototsen jaialdirako sarrerak salgai

I. Terradillos Gaztelu

Pirritx, Porrotx eta Marimototsen dantza jaialdia izango da etzi, ostiralean, Gaztelun, 18:00etatik aurrera. Aurretik, 17:00etan, txokolatea banatuko dute, eta aurpegia margotzeko aukera ere izango da. Jaialdi honekin lortzen duten diruarekin, herrian haurrentzat parke bat eraiki nahi dute.

Dagoeneko, 300 sarrera saldu dituzte, baina oraindik lekua soberan dagoela esan dute antolatatzaileek. Sarrerak 6 euroan eskura daitezke, Gazteluko udaletxean, Tolosako Orbelan, Ibarako Sendi ekintzan, Alegiko Route 33-n, eta ostiralean, Gaztelun.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Eneritz Maiz
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza. Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info
Ibarra: 687 410 118. ibarra@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leizaldea: 687 410 118. leizaldean@hitza.info

**Tolosa Herria
Hedabideak
SM-ko kideak:**

**BERTAKO
HEDABIDEAK**



**Galtzaundi
euskara
taldea**



eta Tolosaldeko
eta Leizaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduana, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Balarain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Irudia Tolosa



BERTSOLARI GAZTEAK, SARITUAK

Tolosako lurre Elkartek antolatutako V. Bertso Paper Lehiaketan sei bertso saritu dituzte, eta ondorengoak dira egileak: Maialen Amunarriz, Iraide Begiristain eta Iratxe Artola; Irati Marin eta Ane Antxustegietxarte; Alazne Iturbe eta Maria Hererro; Arian Martinez eta Lorena Elola; Urtzi Olazabal eta Julen Seguro; eta Uxue Magro eta Genesis

Sanchez. Gaztetxoak izan arren, maila handiko bertsoak egiten badakitela erakutsi dute. Eta egiten ez ezik, abesten ere bai, egileek nahiz sari banaketara joan zirenek gogotsu kantatu baitzituzten bertso guztiak. Abestu ostean, sariak banatu zituzten Igor Ezenarro Kultura zinegotziak eta lurre elkarteak ordezkariek. L. TERRADILLOS

Agurak



Zorionak!

Hodeiek ekainaren 2an 3 urte eta **Attuna Alfonso** ekainaren 6an (Leitza). Urte askotarako eta muxu handi bana familia guztiaren partetik.



Zorionak!

Irati Martinez Sagastibeltza (Leitza). Ekainaren 19an urte 1. Urte askoz polita eta muxu handi bat familia guztiaren partetik.



Zorionak printxesa!

Narrea Esnaola. 5 urte! Muxu handi bat. Manex, Aita eta Ama

AGURRAK
943-65 56 95
tolosaldean@hitza.info

●● agurak

MAUKA berria GAURKO ESKAINTZA

Zeu izango zara chef onena!

SUKALTAKA
Solana 4
Tolosa 20400 GIPIUZKOA
Tel.: 943-69 74 13
tour@tolosaldea.net
www.tolosaldean.net

Prezioak
25€ helduak
13€ haurrek

www.mauka.eu **berria** taldea

Egin HITZAren HARPIDEDUN
ekainaren 1etik uztailaren 22ra arte, ETA JASO:

Barrenetxe
www.barrenetxe.com
sasoiko barazkien otzara

Harpidedun egiten diren guztien artean

Orduñako Aisia hotelean, bi pertsonarentzako asteburu baterako egonaldia ZOZKATUKO DUGU

Harremanetarako:
902 82 02 01
harpidetza@hitza.info

hitza info